

# ATAÑOREN ITURRI ABERATSA...

Egungo gazteentzat katebegi albora ezina

Mikel Ugalde

Euskara garden eta bizi bezain aberatsaren iturri garbia dugu ezbairik gabe, iaz joan zitzaigun Salvador Zapirain "Ataño". Bere lanak zein baino zein dira interesgarriak. Euskara gero eta gehiago ikasi nahi duen gazteak badu hor edari fresko eragingarriak.

Diodan, hasiera hasieratik argi eta garbi, ez naizela ni egokiena Atañoen lan eskerga neurtu eta behar bezala balioztatzeko. Ez dut Atañoen bizitzaren zertzeladak hona ekartzeko asmorik; ezta bere lanen azterketa eta kritika egitekorik ere. Mezu zehatz batek nakar hona: euskal letretan albora ezineko erreferentzia izango da Ataño hemendik aurrera.

## Euskaldun osoa

José María Sanchez Carrionek, soziolinguistikan *Txepetx* ezizenez ezaguna denak, halako tipologia bat egiten zuen euskaldunak multzokatzeko garaian. Horietako batzuk euskaldun peto petoak dira, euskaraz pentsatzen dutenak, beren burua euskaraz egituratuta daukatenak baina alfabetatu eta kulturizatu gabeak. Ezagunak zaizkigu, esaterako, betidanik euskaraz bizi izan diren, eta euskaraz eskolaratzeko aukerarik izan ez duten, baserritarrak.

Eskema honi jarraiki, hor dauzkagu gaztetan, lan eta neke askoren ondorioz, euskara ikasi dutenak. Hauetarikoen artean badira euskaltzain izatera iritsi direnak. Gehientsuenek, ordea, halako oztopoekin egiten dute topo eta naturaltasun batetara ezin iritsirik aurkitzen dira. Euskara ikasi dute baina euskaraz egiterakoan gaztelaniaz pentsatu eta ondoren itzuli egiten dute. Euskaraz pentsatu eta sortutako esamoldeak menderatzeko ahaleginak egiten dituzte baina guztiak ez dira helmugara iristen. Txepetxen hiztegiari jarraiki, halako naturaltasun bat falta zaie oraindik. Esan gabe doa egindako ahalegin hori benetan eskertzekoa dela eta euskara zenbait lurraldetan berreskuratzen hasia bada eskolari eta euskaldunberrien ahaleginari eskerrak izan dela.

Berezko euskalduntasuna eta kultur izaera uztartuko dituen da, Txepetxen iritzi, euskaldun osoa. Batzuek seaskatik euskara jaso eta kulturbideetan aurrera egin dute eta beste batzuk, berriz, ikasiaren poderioz euskara menderatu eta naturaltasunera hurbildu izan dira.

Txepetxen sailkapenean euskaldun osotzat jo dezakegu Salvador Zapirain. Erabateko euskalduna zen batetik

baina, aldi berean, kultur izaeraren jabe zen, bestetik. Bere lan harrigarriak argi eta garbi erakusten du "Ataño" zernolako euskalduna genuen.

"Ataño", tamalez, joan zitzaigun eta ondorengo urteetan soiltzen eta bakantzen joango zaigu euskaldun osoen basoa. Gero eta gutxiago dira euskaldun elebakarrak, gero eta gutxiago euskaraz pentsatu, bizi eta sortzen duten euskaldunak. Gure Zapirainen belaunaldia joan da eta berriek, euskarari dagokionez, nekez lortuko dute erreneriarrrak erakutsi zigun maila.



## Txantxangorri kantaria.

Nere esker ona erakutsi asmoz, zerbait idazteko asmotan. Atañoen lanetako bi izan ditut gogoan: *Azkeneko saskigilea* eta *Txantxangorri kantaria*. Biotan lehenengokak baserriz baserri saskiak egiten jardun ohi zuten saskigileen lan mundua, izaera eta portaera azaltzen digu. Bigarrenean, berriz, bere aitaren bizitza latzaren berri emanaz datorkigu. Liburuaren izenburuak berak, base-




rri giroan hain gertukoa den txoriaren irudia erabiliz, lanaren arrasto nagusia bistarazten duela esan daiteke.

Lehenik eta behin, Atañoaren liburu hau irakurtzerakoan, aitor dezadan batez ere kontalari bati entzuten ari natzaion sentsazioa izan dudala. Liburua entzun egin dut irakurri baino gehiago. Gaur egun literaturan ugalduz doaz zenbait idazlanekin batera ahotsa bere jasotzen duten CDak. Poesian, esaterako arrakasta handia izan dezakeen aukera da. Honelakoetan, idatzitakoari hotza eransten dio egileak. Salvador Zapirainen lanean, ordea, alderantziz egiten duenaren sentipena sumatzen dut: idatzitakoa kontatu ordez, kontutakoa idazten du. Kontatzeko moldea, erritmoa, esaldiak osatzeko modua,

### Belaunaldi baten lekuko.

Gure historiaren eta belaunaldi baten lekuko izan dugu Ataño. Imaginatzen al zera Salbadorren haurtzarotik hona Errenterriak eman duen aldaketa?

Izan ere, bizimolde baten testigantza eskaintzen digu errenterriarrak hainbat lanetan. Garai bateko bizimodua, baserria, auzo bizitza, erlijioaren eragina, aisialdiaren apurraz baliatzeko aukerak, ohiturak, pentsaera, usadioak, hizkera, portaerak, baloreak... Gudaren ezpata zorrotza bizi izan duen familiaren samina eta ezina... Lehengo pasartearen haritik begira nola jarraitzen duen: *“Joan dan gudateko ordu larri aietan oso txatxu portatu baiziran*



hizkera, iruditeria... Ahozkoaren oihartzun dugu *Txantxangorri kantaria*. Begiekin baino, belarriekin gehiago eta gusturago irakurri dudana da. Hitanoaren erabilerak ahozkoasunetik gertu diharduela erakusten du. *“Aita il ezkerok ere, amaika joan-etorri egiña nauk Errenderi xarrera. Guda ezkerok, berriz, oso bakan, nik bezala, nere semeak ere”*. Pasarte labur honetan, esaterako, bistan da ahozkoasunaren ezaugarriak, nola zaintzen dituen gertutasuna *“hamaika joan-etorri egiña nauk”*; hizkeraren ekonomia, bigarren esaldian ez da aditzik ageri; egituraren paraleloa *“Aita il ezkerok... Guda ezkerok...”*.

Euskara irakasten aritzea egokitu zaigunoi, sarritan luzatu izan zaigun galdera da: zein da euskara onaren erdutzat har daitekeen idazlana? Zorionez, badira euskara ezin hobea darabilten idazleak. Hala ere, bide honetatik aurrera egin nahi duenari Atañoaren lanak irakurtzeko berebiziko mesedea egingo dio.

Puntu honen inguruan eztabaidarako gaia ere berehala mahairatuko dizu zenbaitek euskara ona bai, baina gaur eguneko premietarako balio ez duela esanez. Gaiak eta garaiak baditu bere legeak, noski. Beharbada, seigarren hamarkadaren hondarrera iritsi garenok ongi egingo genuke idazle gazteen lanak gehiago irakurriko bagenu. Baina baita alderantziz ere. Idazle gazteak jakineko erreferentziak behar ditu euskararen literaturgintzan aurrera egoki egin ahal izateko. Ataño izan daiteke horietariko bat.

*gurekin, ainbeste maite genitun herriko apaizen batzuk. Judasena egin ziguteken. Aspaldian mundu ontatik joanak ditu. Gizonen aurrean eskuak garbitzeak an etziek balioko. Nere sinismenik alare ez uan urritu. Len ainbestex maite dizkit apaizak. Batzuk alakoak atereak, besteak etzeukatek errurik. Altza alderako joera zeukagu geroztik. Askoz urrerago baidaukagu gainera”*. Irakurri ezezik, hau entzun beharreko pasarte da.

Hain urruna ez den gure iraganaren historia ezagutzeko aukera ezin hobea da Ataño. Urtetan aurrera zoaztenok, gogoan izango duzue Pasaian zernolako obra erraldoia egin zen, San Markos ingurutik harria nola karreatzen zuten... Baina Ataño irakurrita jakin dut harri hori beren lurretan ateratzen zutela eta horren ordaina kobratzeko bereak eta bi egin behar izan zituztela eta, azkenean, abokatuengana jo eta haren bidez kobratu ahal izan zutela... Urre guztia ez da dizdira, nonbait.

Zapirain katebegi albora ezina dela genion izenburupean. Euskara hizkuntza izateaz gain gure nortasunaren eta izaeraren sostengu da. Historian zehar, mendez mendez gure aurrekoek euskararen baitan bizi izan dira. Urak bere ibilbidean aurkitzen dituen elementuak karreatzen dituen bezala, halatsu euskarak ere. Zordun gaztaizkie gure aurrekoei eta erantzule gaituzue ondorengoan aurrean. Iragana ezagutzen dugun neurrian hobeto landu ahal izango dugu geroa.

Eskerrik asko, Ataño.